

Liburuak

KRITIKA

Armairu barruan ipuinak irakurtzen zituen neska. Leire Bilbao. Erein. 35 orrialde. 9,90 euro.

Haur eta gazte literatura
Xabier Etxaniz Erle



Ametsa egia denean

“ARMAIRU ZAHAR BAT daukat logelan. Nire aitaren amarena izan zen”. Esaldi horrekin ekiten dio Leire Bilbaok ipuin labur eta interesgarri honen kontaketa. Irakurleak, liburuaren izenburuari erreparatuta, ikusi ahal izan du neskak bat dela protagonista, liburu zalea –edo ipuinak irakurtzen dituen, behinik behin– eta armairu bat ere ageri dela istorioan.

Eta hain zuzen armairu zahar hori etxetik eraman nahi dute eta asmo horren inguruan eraikita dago ametsa eta errealitatea, oroitzapenak eta oraina nahasten dituen ipuin xume eta lortu hau.

Ane, istorio honetako protagonista eta narratzailea, sarritan bere gelako armairu zahar eta handian ezkututzen da liburuak irakurtzeko eta oraingoan ere, izeba Mireni armairua eraman nahi dioten honetan Ane barruan ezkutatu da. Alizia, Tom Sawyer, Pipi... asko dira Anerekin armairu barruan dauden pertsonaiak (guztiak haur eta gazte literaturako klasikoak), eta horiekin konpainian dagoen bitartean Anek hainbat abentura izango ditu armairu zaharra dela eta.

Ipuin laburra da Leire Bilbaok idatzi eta Estibalitz Jalonek ederki, bere estilo propio eta ezagun horretan, ilustraturiko lana. Laburra, baina era berean oso bizia, hainbat lekutan, ametsetan eta errealitatean, plano ezberdinetan... kokaturiko istorioa.

“Amona Antiguaren armairua nire ezkutaleku kuttunena da. Goiko partean linterna bat eta liburuak gordetzen ditut, eta inork molestatu gabe neure kasa egon nahi dudanean bertara sartzen naiz” (10. orrialdea) dio Anek, eta hain zuzen armairu zahar horren magian eta armairua eramatean eginiko bidaian oinarritzen da ipuina; bi mundu dira, armairu barruan Anek bizi duena liburuekin, ipuinetako protagonistekin, eta bestetik armairua eramaten dutenean –Ane barruan geratu delarik– jazotzen diren egoera bitxiak: abandonaturiko traste zaharrez beteriko mendi batean uztean, ijito familia batek hartzen duenean, merkatu batean armairua salgai jartzen denean... Eta abentura horietan –Ane armairu barruan baitago– irakurlea protagonistarekin identifikatzen da; Anek berak narratzeak hori dakar eta; irakurleak neskakilaren begiradaren bidez ikusten baitu guztia, neskakilaren sentimenduen bidez sentitu, Aneren beldurren, jakin-minez edo lasaitasunez –denetarik baitu istorio honetako protagonistak– bizi.

Liburu ederra eskaini digute Bilbaok eta Jalonek, egia eta ametsarekin jolastuz, egia ametsa izan baitaiteke, edo ametsa egia bihurtu. Modu batean nahiz bestean irakurlea ateratzen da garaile obra honetan. ■

Ignazio Aiestaranek totalitarismoaz

Elkar argitaletxeak Eztabaida sailean publikatu du Ignazio Aiestaranek idatzitako *Walter Benjaminen aingerua Gernikako bonbardaketatik*. XX. mendeko ikurretako bat hartzen du Aiestaranek ardatz gisa: totalitarismoaren gerra. 1920 eta 1930eko hamarkadetan Espainiak eta Italiak egindako bonbardaketak, 36ko Gerran Gernikako eta Durangoko

bonbardaketan areagotu ziren, baita esparru ugarritara zabaldu ere. Eta gerra estrategia horrek izan zuen babes ideologikorik. Xenofobiaz beteriko diskurtsoak zabaldu ziren gerra totala justifikatzeko.

Horien azterketa eskaintzen du liburuak, datuak, historia eta literatura bilduz saiakera originalean. ■



Walter Benjaminen...
Ignazio Aiestaran.
Elkar.
209 orrialde.
20,50 euro.

Kurdistan ardatz ‘Hegats’ aldizkarian

Euskal Idazleen Elkartearen publikatzen duen *Hegats* aldizkariak Kurdistan hartu du ardatz azken zenbakian. Herraldea ondo ezagutzen duten lumek idatzi dute aldizkaria: Urtzi Urrutikoetxea kazetari eta idazleak *Iparretik Hegora*, *Kurdistan* artikulua sinatu du, baita literatura kurdura hurbiltzeko testu bat ere. Eta gainera, Helim Yusiv eta Berivan Dosky idazleak elkarrizketatu ditu. Karlos Zurutuza kazetariak –ARGIAKO irakurleek ezagutzen duzue Kurdistanen egin dituen lanen berri– ere parte hartu du *Hegats* honetan, Kaukason kurdueraz hitz egiten dutenei buruzko idatziarekin. Eta Manuel Martorellek ekialde hurbileko adituak ere bere ekarpena egin du. ■

Hegats.
Batzen artean.
EIE.
118 orrialde.
7 euro.

